

# Berrigarra



Begararrak itzuli dira abuztuko oporretatik  
**Datorren urtera arte**  
Guk zazpi bidaiaren berri emango dizuegu

**2001-2002**

# **EUSKARA IKASTAROAK**

## **ESKAINTZA**

Euskalduntze eta alfabetatze maila guztiak.

EGA eta EGAtik gorakoa.

Egokitutako taldeak:

Guraso, merkatari, enpresa...  
AUTOIKASKUNTZA gela.

## **ERRITMOAK**

2 ordukoa (iraila-ekaina).

3 ordukoa (iraila-ekaina).

5 ordukoa

(iraila-otsaila edo otsaila-ekaina).

Astean bi egunean

2 ordu eta erdi (EGA).

Eskarien arabera, beste erritmo batzuk ere eskain daitezke.

Galde ezazu!

## **BULEGO ORDUTEGIA**

Goizez: 08:30-13:00

Arratsaldez: 14:30-18:30

## **MATRIKULATZEKO EPEA**

Irailaren 3tik 18ra.

**16 urtetik gorakoentzat.**

**Bekatze sistema eta diru laguntzak ditugu.**

## **BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA**

Zabalotegi, 13 • BERGARA

Tel.: 943 76 44 53

berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

berg.euskudal@euskalnet.net



**Zuk  
ahal  
duzu**

**MATRIKULA ZABALIK**





# Erderiak tentaitten naxok

JUAN MARTIN ELEXPURU

Hori esaten ei zeban antziñako oñatiarrak, bere buruakin erdi-hasarre, erderara errez jotzen zebalako.

Eta ez da txantxikuarren gaitza bakarrik. Bergaran eta Euskal Herri guztian berdiña pasatzen da. Euskeraz erderaz baiño hobeto jakin arren, eta zurekin berbetan dagona abarkak baiño euskaldunagoa izan arren, erderaz egin biar derrigor, asko edo gutxi. Holakua da gutxi gorabehera gure bilinguismo partikularra: «Si chica, lo pasemos más bien, anduvimos en barco y todo, nunca habíamos andado y. Nik pasau nituan billurrak. A poco nos hundimos con una ola enorme que vino y entró hasta adentro. Zer izan zan haura... Ya le dije a mi marido que otra vez no me pillá». Eta gizonak tabernan: «Te juego lo que quieras que El Atleti cinco puntos le saca este año a la Real. Horrek ba-

loia zer dan bajakixek, ala? Esos lo más redondo que han visto es un melón».

Eta hau ez da oiñezko jentiaeren joera bakarrik. Eskoletako irakasle asko be, esate baterako, nahiz eta egun guztia lanian euskeraz jardun, asko tentatzen dau erderiak. Hori konprobatzeko nahikua da kafe orduan Ariznoara sartzia eta entzutia... ez bazaittue sartzen ikusi, behintzat. Eta irakasliak ez diena be bai.

Hau oin dala hogeit urte gertatzia tira, baina belaunaldi berrixak euskal eskoletatik pasautakuak direnien, erabilera aldeko hainbeste kanpaina egin darian, euskeraz egitia ondo ikusita dagonian, eta abar eta abar, ez da hain errez entenditzen. Nik uste dot zenbait persona inportantiaua sentitzen dala erderaz diharduanian; «Me expreso mejor» esaten da, baiña ez dakit. Gaiñera

emoten dau azkenaldi honetan indartu egin dala bilinguismo zelebren hau, edo hori pentsatzen jat behintzat. Gero eta aitzakixa txikixaua biar dogula erderara pasatzeko. Neuri be pasatzen jat eta...

Lehenguan Ondarruko plaian bertako ama bat ikusten neban 7-8 urteko semiai erderaz jota sua. Gero amak amandriakin bilinguismuan, mutikuak be bai bere lagunekin... Nun eta Ondarruan. Gure auzuan be konturatu naiz baserriko mutil bati jente guztiak erderaz egiten dotsala, mutillai halaxe gus-tatzen, itxuria. Eta bestiei be bai, emoten dabenez.

Gero konbestaziñuak urtetzen dabedian, Pepe-ri, legeei edo etorkinei botatzen jako kulpa guztia. «Si quieren vivir aquí que aprendan, oye, Ezta egixa ala?»<

«Emoten dau indartu egin dala bilinguismo zelebren hau. Gero eta aitzakixa txikixaua biar dogu erderara pasatzeko»



**NERE AMAIA ZABALA**  
Kultura zinegotzia

«Bergarak ez du azpiegitura aproposik kultura ekitaldietarako. Areto egokirik ez dago» **6.**



**SILVIA ROMERO**  
Olabe okindegiko dendarixa

«Illobekin barre asko egitten dot. Ostera, askotan jartzen naiz triste, nahiko sensiblia naiz» **13.**



**IRUNE GABILONDO**  
Oporretan Yemenen

«Yemenen gizonezko guztiak armatuta ibiltzen dira; hasieran asko txunditu gintuen horrek» **14.**

# AGENDA ETA ZERBITZUAK

hi, gazte!



## BEKAK

**Atzeritarrak.** Kanpo Gaietarako Ministerioa. Erakunde publikoak ikertzeko bekak. Gaztelaniaz dakiten lizentziadun atzeritarrak. Epea: irailak 10.

**Mugikortasun geografikoa.** 3. zikloko ikasleendako. Epea: abenduak 15.

**Hezkuntza Ministerioa.** Izaera orokorreko bekak. Epea: urriak 31.

**Hezkuntza.** Heziketan behar bereziak dituzten ikasleendako. Epea: urriak 1.

## IKASTAROAK

**Berdintasuna.** Masterra EHU, Emakumeen eta gizonen berdintasunaren gainean, Eusko Jaurlaritzaren eta Emakunderen lankidetzarekin. Epea: irailak 24.

**Kazetaritza masterra.** El Mundo. Mila irakastordu. Epea: irailak 10.

**Kazetaritza masterra.** Grupo Correo eta EHUk antolatutako masterra. Epea: irailak 15.

**Italia.** Orientabide artistikoa, Aktore Komikoen Nazioarteko Eskolan. Epea: irailak 9.

## SARIAK

**Literatura erotikoa.** Alacanteko Udala. Gaztedia Saila. Epea: irailak 28.

**Antzerkia.** Antonio Buero Vallejo antzerki saria, Guadalajarako Udalak antolatua. Gaztelaniaz idatzitako lanak aurkez daitezke bakarrik. Epea: irailak 28.

**Pianoa.** Nazioarteko Fundación Guerrero piano lehiaketa Madrilen. Epea: irailak 10.

**Argazkia.** Torredonjimeno, gai libreko argazki lehiaketa. Epea: irailak 14.

**Enpresa.** Toribio Echevarria sarien XII. aldia bi modalitate: Enpresa ideiak eta Sorkuntza eta berrikuntza teknologikoa enpresan. Epea: Urriak 10.

## LANA

**Disneyland Paris.** Gazteendako hainbat lan eskaintza. Frantsesez jakitea. Epea: irailak 14.

**Administrazio bereziko teknikaria.** Tolosako Udala. Epea: irailak 10. Hezitzailea. Irungo Udala. Epea: irailak 17

## KARNETAK

Nazioarteko Aterpekide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatorz Gazte Informazio Gunera.

## INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak. Telefonoa: 943 77 91 57. E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00. Larunbata: 09:30-13:30.

**OHARRA.** Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazte-ehi nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

## bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

### Gaztaiko

Buruko kolpea, kaskarrekoa.  
– *Gaztaiko ederra emun jostan guardasolakin.*  
– *Azelakotxe gaztaikua artu neban atemarkua jota.*



## hau giroa!

San Juan auzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
<b>Abuztuak 30, eguena</b>	24 °C	17 °C	1,9 l/m <sup>2</sup>
<b>Abuztuak 31, egubakoitza</b>	20 °C	15 °C	2 l/m <sup>2</sup>
<b>Irailak 1, zapatua</b>	23 °C	14 °C	0,2 l/m <sup>2</sup>
<b>Irailak 2, domeka</b>	25 °C	10 °C	– l/m <sup>2</sup>
<b>Irailak 3, astelehena</b>	24 °C	12 °C	0,2 l/m <sup>2</sup>
<b>Irailak 4, martitena</b>	20 °C	13 °C	0,6 l/m <sup>2</sup>
<b>Irailak 5, eguaztena</b>	24 °C	12 °C	– l/m <sup>2</sup>

## oharrak

■ **1948an** jaiotako enafaria irailaren 29an Osintxuko Txuringon. Osintxura joateko autobusa aterako da frontoitik, 21:00etan. Izena ematea (6.700 pezeta) Euskadiko Kutxan.

■ **San Joxepe** jubilatuen irteera Larrunera hilaren 20an, 09:00etan ohiko lekutik. Izena ematea (5.600 pta.) irailaren 11ra arte zabalik elkartean bertan, 14:00etatik 21:00etara.

■ **Musika Eskola.** Astelehenean, hilak 10, musika-hizkuntza, koru-hizkuntza, taldeen entseguak eta ahots teknikako klaseak hasiko dira. Instrumentuen klaseak, berri, irailaren 17an hasiko dira.

■ **San Martin ikastetxea.** 3 urtetik gorako enklaseak astelehenean, hilak 10, hasiko dira, 9:00etan.

## jardunen agenda



### ■ Trikiti eskola: panderoa eta soinua:

Urriaren 1etik ekainaren 22ra. Kartzela zaharrean. Panderoa, 1.900 pezeta (hileko kuota) eta soinua 2.650 pta. (hileko kuota).

### ■ Eskulanak:

Urriaren 1etik maiatzaren 27ra Kartzela zaharrean. Urteko kuota: 5.000 pezeta (6.000 bazkide ez direnek).

### ■ Hezkuntza nutrizionalari buruzko ikastaroa:

Urriaren 15, 18, 22 eta 25. Kartzela zaharrean. Urteko kuota: 2.000 pezeta (2.500 bazkide ez direnek).

## kontuan hartu...

### FARMAZIAK

EGUAKITZA 7:

PUY. Barrenkalea 25. . . . . 943 76 16 87

ZAPATUA 8:

CAMACHO. Oxirondo 4. . . . . 943 76 11 74

DOMEKA 9:

CAMACHO. Oxirondo 4. . . . . 943 76 11 74

ASTELEHENA 10:

MOZOS. San Pedro 4. . . . . 943 76 12 15

MARTITZENA 11:

CAMACHO. Oxirondo 4. . . . . 943 76 11 74

EGUAZTENA 12:

PUY. Barrenkalea 25. . . . . 943 76 16 87

EGUENA 13:

CAMACHO. Oxirondo 4. . . . . 943 76 11 74

### OGIA

DOMEKA 9. . . . . Mizpildi

### TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Anbulatorioa (txanda) . . . . . 943 76 24 40

Bergarako udaltzaingoa. . . . . 943 77 91 06

Antzuolako udaltzaingoa. . . . . 943 76 62 46

Ertzaintza. . . . . 943 76 53 40

Osasun Etxea . . . . . 943 76 24 40

Asepeyo . . . . . 943 76 16 43

Pakea . . . . . 943 76 13 49

Angiozarko medikua . . . . . 943 78 90 27

Antzuolako medikua . . . . . 943 76 62 23

Odol emaleak . . . . . 943 76 16 24

Alkoholiko anonimoak. . . . . 943 76 51 06

GARRAIOAK

Taxiak . . . . . 943 76 19 50

UDALA

Bergarako udaletxea . . . . . 943 77 91 00

Antzuolako udaletxea . . . . . 943 76 62 46

Udal Artxiboa . . . . . 943 77 91 32

Igerilekuak . . . . . 943 76 20 51

Kultur Etxea . . . . . 943 77 91 58

Liburutegia . . . . . 943 77 91 62

Kiroldegia . . . . . 943 76 56 41

Mizpirualde Egoitza. . . . . 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia . . . . . 943 76 14 92

Erregistroa. . . . . 943 76 13 15

Jardun . . . . . 943 76 36 61

Idolaz. . . . . 943 76 65 08

Jubilatu en Etxea. Bergara. . . . . 943 76 21 40

Antzuolako jubilatuen elk. . . . . 943 76 62 71

Postetxea . . . . . 943 76 26 85

Bedelkar . . . . . 943 76 04 68

Akulu AEK . . . . . 943 76 05 18

Udal euskaltgia . . . . . 943 76 44 53

Bergarako notaritza. . . . . 943 76 10 73

**zorionak!**



**Maider Uribe**  
Irailaren 5an 6 urte.  
Urte askotarako!  
Eneko, Arantxa eta  
etxeko denak.



**Arantxa Arizaga**  
7an 11 urte.  
Urte askotarako!  
Eneko, Maider eta  
etxeko denak.



**Itxaso Calbano**  
Irailaren 5ean  
4 urte.  
Urte askotarako!  
Lehengusuak.



**Ander Feo**  
Abuztuaren 22an  
4 urte. Urte askota-  
rako! Etxekoak eta  
aitona-amonak



**Lorea Madinabeitia**  
Irailaren 9an  
5 urte. Urte  
askotarako! Idoia  
eta familiakoak.



**Maddi Arzelus**  
Abuztuaren 29an  
2 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Aitor Olañeta**  
Irailaren 13an  
5 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Mikel Soto**  
Abuztuaren 11n  
4 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Beñat Pelicano**  
Irailaren 13an  
2 urte. Urte askota-  
rako! Tia Yolanda  
eta Belen.



**Juan Gantxegi**  
Irailaren 6an  
urteak. Urte askota-  
rako! Emaztea eta  
seme-alabak.



**Danel Seco**  
Irailaren 5ean  
6 urte.  
Urte askotarako!  
Aita, ama eta Julen.



**Koro Iraegi**  
Irailaren 13an  
42 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Leire Aperribai**  
Abuztuaren 20an  
6 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Oier.



**Garazi Zubizarreta**  
Abuztuaren 31n  
4 urte.  
Urte askotarako!  
Mikel eta gurasoak.



**Aitor Kortabarria**  
Abuztuaren 15ean  
6 urte.  
Urte askotarako!  
Asier eta gurasoak.



**Andoni Mujika**  
Irailaren 5ean  
8 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Unai Gorostidi**  
Irailaren 13an  
8 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Ismene Gorostidi**  
Irailaren 13an  
4 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Irene Markiegi**  
Abuztuaren 29an  
8 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta anaiak.



**Irati Lenisoro**  
Abuztuaren 6an  
6 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Ainhoa Mardaras**  
Abuztuaren 20an  
6 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Ainhoa Alonso**  
Irailaren 11n  
12 urte.  
Urte askotarako!  
Maite eta Nerea.

*Hurrengo alean,  
irailaren 14tik 20ra  
bitartekoen zorion agurrak  
argitaratuko ditugu.*

**gutunak**

**BERGARAKO HERRIARI**

Orain dela urte batzuk eratu genuen plataforma Bergarako espexeratuen alde lan egiteko, batez ere Joxe Mari Etxanizen alde, espexetik kanpora egon behar zutelako. Zorionez, gure artean dugu Joxe Mari eta poz handia ematen digu jakiteak gure ahaleginek zerbaitetarako balio izan dutela.


Bergarara Plataformaren izenean eskertu nahi ditugu Luis Etxeberria eta Joxe Mariaren askatasunaren alde ahalegindu diren denak: herritarrek, Udala, alderdi politikoak, herri-erakundeak, senideak, lagunak eta abar. Zorionak eta eskerrik asko. Gure helburuak bete direla uste dugu eta oraingoz Bergarara plataforma, desegin egiten da. Zigorren hiru laurdenak beteta zutenak askatzeko sortu zen plataforma hau, eta gaur-gaurkoz ez dago inor egoera horretan. Zoritxarrez berriro holakorik gertatuko balitz, modu berean erantzuteko prest gaude. Plataformaren izenean, eskerrik asko denoi, eta Luis eta Joxe Mari, hartu gure besarkadarik estuena. Agur.

*Bergarara plataforma*

- L** Ikastaro teoriko trinkoak **euskaraz eta gaztelaniaz**
- L** Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- L** Izena ematean, **%10eko deskontua** Gazte Txartelarekin

**Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!**

Telefona: 943 76 16 63



**Pintatze lanak orokorrean**

Iraila kalea z/g  
Tel. eta faxa: 943 76 33 01



ANCEPEK homologatutako diploma

**Ile apaintze eta estetika zentruak  
Kalitatezko irakaskuntza**

**MATRIKULA ZABALIK**

**DAMKAR'T  
Eibar. 943 12 15 18**

**BOLU SUKALDEAK**

**Zure sukaldearen  
diseinua eta  
aurrekontua  
konpromiso barik**

**Bolu, 22-behea, BERGARA  
Tel. eta faxa: 943 76 27 02**

NERE AMAIA ZABALA  
Kultura zinegotzia

*«Bergarak ez du azpiegitura egokirik kultura ekitaldietarako»*

**Nere Amaia Zabala Jai eta Gazteria arloko zinegotzia dugu. Iaz, uztaile eta abuztuko eguenetan, jazz eta film emanaldiak antolatzeari ekin zioten. Aurten, gauza bera egin dute. Uztaile eta abuztua igarota, jakin nahi izan dugu aurtengo ekitaldien gainean zein balorazio egin duten eta jarraipenik izango ote duten.**

**G.** Nola joan dira uztaile eta abuztuko eguen gauak?

**E.** Oso ondo. Uztailean Espaloian izan nintzen jazz entzuten eta harrututa geratu naiz izan duen harreraz. Arrakastatsuen The Big Jamboree taldea izan zen, ez bakarrik musikagatik, eman zuten ikuskizunagatik ere bai. Pena izan zen egun batean eguraldiak ez zuela lagundu. Hotza eta euria egiten zuen, eta pilotalekura eraman gehuen emanaldia, baina egunean bertan izan zenez aldaketa, jende gutxiago hurbildu zen. Gainera, pilotalekua ez da Espaloia bezain aproposa jazz emanaldi baterako. Bestalde, adin eta mota ezberdineko jendea hurbildu izan da, eta horrek esan nahi du jazz jende askori gustatzen zaiola.

Zinema ere antzera. Emanaldi guztietan ehun eta berrogeita hamar aulkia bete ziren, eta jendea zutik ere egon zen. Birritan eguraldi txarra egin zuen, baina emanaldiak ez ziren bertan behera laga, arkupean egin ziren.

**G.** Zergatik erabaki zenuen ekitaldiok antolatzea?

**E.** Udan eguraldi ona egiten du eta jendea gehiago ibiltzen da kalean. Ekitaldi hauekin esparru hori bete nahi izan dugu. Jendeak tabernetan ibili beharrean, izan dezala kalean beste

zerbait ondo pasatzeko. Eta, izan duen arrakasta ikusita, badirudi asmatu dugula.

**G.** Zergatik jazz eta filmak?

**E.** Jazz oso musika egokia da gauez entzuteko, lasai. Oso goxoa da, eta gehiago Espaloia moduko toki batean.

Filmen kasuan, nik uste dut moda kontua dela. In-



Nere Amaia Zabalak iaz hartu zuen Kultura zinegotzi kargua.

**«Datorren urteko udan jazz eta zine emanaldiekin jarraituko dugu. Baina eguenetan izan beharrean egubakoitzetan izango dira»**

guruko herri batzuetan filmak eskaintzen dituzte udan, kalean, eta guk gauza bera egin nahi izan dugu.

**G.** Bi urteren ostean, jarraipenik izango dute udako gauetako ekitaldiek?

**E.** Duda barik. Jarraitu egingo dugu.

**G.** Jazzarekin eta zinemarekin ala beste zerbaitekin?

**E.** Jazzarekin eta zinemarekin jarraituko dugu. Baina izango dira aldaketak: datorren urtean ekitaldiak egubakoitzetan izango dira egunean izan beharrean.

**G.** Zergatik?

**E.** Iaz, eguenetan hasi ziren. Pentsatu zuten egubakoitzetan jendea kanpora joaten dela. Baina aurten ikusi dut ekitaldi hauek hurbiltzen den jendea ez dela, normalean, egubakoitzetan kanpora joaten. Bestalde, egun gauean ekitaldia izanda, egubakoitzetan lan egin behar da, baina emanaldia egubakoitzetan bada, hurrengo egunean jai da, eta jendea lasaiago egon daiteke kalean. Hortaz, datorren urtean egubakoitzean izango dira.

**G.** Udako ekitaldiak kalean egiten dira, ez dago areto beharrik, baina gainerakoan ez dugu azpiegitura aproposik herrian.

**E.** Kulturarako areto aproposik ez dago. Pilotalekua eta elizak ditugu, baina besterik ez. Seminarioko elizan auditoriuma egiteko saiakera bertan behera geratu da, eta pena handia izan da. Baina eutsiko diogu berriro. Zabalotegikoa, aldiz, aurrera doa. Uztailearen 31n proiektua jaso genuen, eta maiatzean hasiko dira egokitze lanak, seguruenik. Bideratuta, behintzat, badago. Formatu txiki-ko ekitaldietarako erabiliko da, eta 150 lagunendako toki izango du.



# SHOTOKAN KARATE-DO



- Karatea ikasi nahi duten guztiei gogoratzen diegu, denboraldi honetako klaseak hil honen 10ean, astelehena, hasiko direla, ondorengo orduetan:

**Umeak: 1. txanda, 17:30etik 18:30era**

**2. txanda, 18:30etik 19:30era**

**Nagusiak: 19:30etik 20:30era**

- Ikastaroak **Joxean Iñarra** irakasleak emango ditu, titulu hauen jabea:

**Euskadiko selekzioko entrenatzailea**

**Gipuzkoako selekzioaren hautatzailea**

Soin hezkuntzako lizentziatua (INEF)

Karateko gerriko beltza 2. Dan-a

Ninjitsu gerriko beltza 2. Dan-a

Karate entrenatzailea

Ninjitsu entrenatzailea

Karate-epailea

Eta, gainera, Karateari buruzko material didaktikoa gertatzeko Deba Garaiko Mankomunitatearen beka lortua duena.

**Harremanetarako deitu**

**670 865 032 telefonora**

**edo zatoz Miguel Altuna berriko**

**gimnasiaora entrenamendu orduetan.**

*Shotokan txapeldunen eskola!*



## FRANTSES IRAKASKUNTZA



Mizpildi 3, 1. ezkerre • BERGARA

**2001-2002 ikasturtea**

FRANTSESA - FRANTSES KOMERTZIALA

AZTERKETETARAKO PRESTAKETA

UMEENDAKO FRANTSESA

**Ikastaroaren hasiera:**

**urriaren 1a**

Izena ematea: irailaren 28ra arte

Informazio gehiago: 10:00-12:00 eta 18:00-20:00

**943.76.30.55**


## Debagoienera ireki dute San Martinetako okela gisatu lehiaketa

Bestalde, aurten, ez da martiriorik izango nagusien danborrada ostean

**Aurten ere, herriko harakinek okela gisatu lehiaketa antolatu dute San Martin jaietarako; seik hain zuzen. Iaz ez bezala, aurtengo lehiaketa Debagoienera ireki dute, eta ibarreko sukaldaritza zale guztiek edota elkarteek har dezakete parte.**

Iaz hasitakoarekin jarraituz, herriko hainbat harakinek Okela Gisatu lehiaketa antolatu dute aurten ere San Martin jaietarako. Bigarren lehiaketa hori datorren zapatuan, hilak 15, jokatu dute, Munibe plazan, 10:00etan hasi eta 13:00ak arte.

Debagoieneko sukaldaritza zale guztiek edota elkarte gastronomikoek har dezakete parte, aurtengoan. Baina gehienez, hamar lehiakide izango dira; izena ematen duten lehenengo hamarrak. Hala ere, lehiakide bakoitzak laguntzaile bat



Mikel Ariznabarreta eta Xefirino Mondragon, iazko lehiaketako irabazleak.

izan dezake. Izena emateko epea hilaren 11an amaituko da, honako harategi haue- tan: Jose Jabier Igarza, Jon Leturia, Luis Mari Retolaza, Sebastian Imaz, Jose Luis Leturia eta Peio Urzelai. Jon leturia antolatzaileetako baten esanetan, okela gisatu lehiaketa antolatzearen xede haragia bultzatzea da, "batez ere gaur egun okelaren inguruan entzuten den guztia kontuan izanda".

Lehiaketaren xedea lapiko bat okela gisatu prestatzea da, norberak aukeratu- tako erara. Antolatzaileek bi kilo haragi emango dizkiote lehiakide bakoitzari, eta bai- ta 4.000 pezeta ere, saltsa egiteko barazkiak erosteko. Hiru sari banatuko dituzte, eta euskal sukaldari eta gas- tronomo ospetsuek osatuko dute epaimahaia.

Prestatutako okela San Martin plazan jarriko den

txosnan dastatu ahal izango da, aurten ez baita herri afaririk izango.

### MARTIRIORIK EZ

San Martin jaietarako prestatuzunak aurrera doaz. Dagoeneko, hasi dira nagusi zein umeen danborradetarako entseguak. Astean egu- nero entseatu dute Semina- rioko patioan, eta datorren astelehenetik eguenera beste horrenbeste egingo dute: umeek 19:00etatik 20:00eta- ra, eta ondoren, helduek. Umeen danborrada hilaren 16an izango da, 19:00etan, eta nagusiena 15ean, 22:30ean.

Nagusien danborradari dagokionez, danborrada amaieran ez da San Marti- nen martiriorik izango. Udal arduradunen esanetan, hainbat urtean martirioa ant- tzeztu ondoren, aurten alda- tzea erabaki dute. Martirioa- ren orde zere egingo duten, hala ere, egunera arte sek- retupean gordeko dute.

## Ramon Maria Liliko bide berria irekita dagoeneko

**Abuztuaren 7an ireki zuten Ramon Maria Lili eta Ibargarai lotzeko errepide berria. Hori dela eta, aurre- rantzean, autoz Bideguru- tzetatik igaroz gero, sahies- bidea irteteko, errepide ber- ritik Ibargaraiako errotonda- ra hartu beharko da, gero handik sahiesbidera jotze-**

ko. Bestalde, Ramon Maria Lilin dagoen orubea aparka- leku gisa aprobetxatzeko, kale hori behetik gora har daiteke, lehen ez bezala.

Errepide berria, baina ez dago bukatuta. Oraindik Ramon Maria Lilitik Mariaren Lagundiarainoko zatia egi- teko dago.



Aurrerago, Mariaren Lagundiaraino luzatuko dute irudiko bide berria.



# Presoekiko elkartasun tonbola San Martinetan

**Bergarako** Amnistiaren aldeko mugimenduak tonbola antolatu San Martin jaietarako. Egubakoitzean, hilak 14 zabaldu, eta aste-buru osoan egongo da irekita.

Tonbolaren helburua, presoekiko elkartasun eragiten dituen gastu ekonomikoari aurre egitea da. Horrela azaldu zuten martitzenean egindako prentsaurrekoan hainbat presoren senideek eta AAB-ko Elkartasun taldeko zenbait kidek.

Martitzenean azaldu zuten bezala, Bergaran zazpi preso daude, eta "bakoitzak, urteko, 524.000 pezeta behar izaten ditu gastuei aurre egiteko (janaria, garbitasun gaiak...). Horri guztiari, euren senideek bidaietan gastatzen duten kopurua gehitu behar zaio: urtean ia 6.500.000 pezeta. Guztira zazpi preso horien gastua, urteko, 10.142.200 pezetakoa da.

Hori horrela izanik, aipatutako Elkartasun taldeak presoen senideei sortzen



Tonbolaren antolatzaileak martitzeneko prentsaurrean.

zaizkien gastuak finantzatzeko laguntzeko ekintzak antolatzea du xedeetako bat. Hor kokatzen da San Martin jaietarako antolatu duten tonbola.

## HERRITARREK EMANDAKO OPARIEKIN

Tonbolarako sariak herriko denda, taberna, jatetxe, elkarte eta lantegietatik eta herritarrengandik jaso dituzte; mila eta hirurehun opari inguru: "denetarik jaso dugu, opari xumeagoak eta ez horren xumeak. Erantzun oso ona jaso dugu herrita-

rrengandik eta guztiz esker-tzekoa da hori".

Tonbola non jarriko duten zehaztu gabe dago oraindik. Mila pezetaren truk bost txartel eskuratu ahal izango dira, eta sari segurua egongo da.

Banaka erosteko aukera ere egongo da, 200 pezetan txartel bakoitza, baina era horretan saria ez da horren ziurra izango. Hala ere, saririk jaso ezean, zapatu eta domekan, 23:00etan egingo den zozketa berezi baterako zenbakia eskuratzeko aukera egongo da.

## Udal Liburutegiko ordutegia


**Joan** den astelehenerik udako ordutegia alde batera utzi, eta ohi-ko ordutegiari ekin dio Udal Liburutegiari. Beraz, datorren udara arte honako ordutegi hau izango du: astelehenerik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara egongo da irekita, etenik gabe, eta zapatutan, 09:00etatik 13:00etara.

## Turismo bulegoa zabalik irail osoan

**Abuztua** joan zaigun arren, Turismo bulegoak irekita jarraituko du. Aurten, lehenengoz, irailaren 30era arte egongo da zabalik Turismo bulegoa eta orain arteko ordutegiarekin jarraituko du, honako ordutegiarekin, hain zuzen ere: astelehenerik egubakoitzera, 10:30etik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era. Horrez gain, domeka eta jaiegunetan, 11:30etik 14:30era egongo da zabalik.

## Abuztuan lur erorketa izan zen saihesbidean

**Abuztuaren** 11an, iluntze aldera, lur erorketa izan zen Zubiaurre ostein egiten diharduten saihesbidean. Mariezkurrena, lanez arduratzen den enpresako iturrien esanetan, "lurra nahiko txarra da, ez du harri askorik, eta ondorioz, egindako 45%ko ezpondak ez du lurrerauntsia eutsi". Eroritako lurrarekin batera hainbat pinu erori ziren. Hala ere, errepiderako plataforma eginda zegoenez, hara erori ziren lurra eta pinuak. Enpresako ordezkarien esanetan gauza bera ez gertatzeko neurriak hartu dituzte.



# Berrigara

463 zenbakia.  
2001eko irailaren 7a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.  
20570 Bergara.  
Telefonoa: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta elektronikoa:  
berrigara@topagunea.com  
Argitaratzailea: JARDUN Elkartea

**Zuzendaria:** Edu Mendibil.  
**Erredakzioa:** Monika Belastegi, Aintzane Irizar, Edu Mendibil.  
**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.  
**Publizitatea:** Mireia Larrañaga.  
**Harpidetza:** Nerea Lazpiur.  
**Testuen zuzenketak:** Sergio Azkarate, Gari Bragado.  
**Erredakzio kontseilua:** Eneko Azkarate, M. Angel Elkoroberezar, Alex Labaien, Estepan Plazaola.  
**Komikiak:** Peru Azkarate, Oihan Vega, Usoa Mendikute, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.  
**Kolaboratzaileak:** Luis Mari Agirre, Maitane Arizabaleta, Juan Martin Elexpuru, Gorka Ortega.  
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.  
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga, Oñati).

Azaleko irudia: Berrigara

Tirada: 5.600 ale.  
Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntzaz:



## atrebentzia ezpada

### Oporretatik bueltan, ze da pereza haundixena emoten dotzuna?



**Maialen Alkorta**

Ikastolako liburuetan pentsatzen hastiak pereza haundixa emoten dost.



**Luis Arregi**

Lanian hastiak. Beste gauza batzuk be perezia emoten doste, baiña tartian horretxek.



**Maite Ibarzabal**

Berriro etxeko lanetan hastiak. Urte osorako erruberran sartziak. Oporrak azkarregi pasatzen die.



**Jose Ramon Arakistain**

Lehenago lanera bueltatziak emoten zotan perezia. Baiña gaur egunian gustora bueltatzen naiz.



**Juan Jose Egibar**

Ondo pasau ezkerro, ez dost ezerk perezarik emoten. Jakindda, gaiñera, lanera bueltau bihar naizela...



**Jose Ramon González**

Perezia, batez be, lanian hastiak emoten dost.

## tira biraka bittor rodriguez



adituen esanetan

bergarako zuhaitzak

# Onddoak eta papilomak

**O**nddoak (*micosis*) eta papilomak gehienbat udan gertatzen diren arazoak dira. Oinak behar bezala sikatzten ez ditugunean ager daitezke eta udan, hezetasunaren ondorioz, kasu gehiago izaten dira. Beroak eta izerdiak zeri-kusi handia daukate onddoak sortzeko orduan eta berdin eragiten die ume, gazte zein helduei. Kirolariak asko sufritzen duten gaitza da, dutxetan-eta onddoak nahiko erraz kutsatzen direlako.



**ARANTZAZU AZPIAZU**

Podologoa

«Onddoak eta papilomak gehienbat udan agertzen dira, hezetasuna arrisku faktorea delako»

Besikula edo baba moduko batzuk agertzen dira oinetako larruazalean, behatz tarteetan jeneralean, eta azkura handia eragiten dute. Hazka egiten badugu, berriz, arriskutsua da, onddoak oin guztira zabal daitezkeelako. Egia esateko, nahiko desatsegina da onddoak izatea. Gainera, onddoek azazkalei eragiten diete zenbaitetan, eta kasu horietan, sendatzea ez da erraza izaten.


Tratamenduari dagokionez, nahiko luzea da eta badira merkatuan produktu berezi batzuk onddoak sendatzeko. Dena dela, onddoak prebenitzea izaten

da onena. Horretarako, oinetako izerdia saihesten ahalegindu behar gara (egunero zapatilak erabiltzea ez da batere gomendagarria) eta oinak ondo sikatu behar ditugu dutxatik irten edo izerdi egiterakoan.

Papilomak, aldiz, oin azpian agertzen diren garitxoak dira. Zuriak eta birotilak dira eta barruan puntu beltzak dituzte. Papilomak oso minberak dira eta horiek ere oso erraz kutsatzen dira. Ortozik ibiltzeagatik eta oinak ondo ez sikatzegatik

irteten dira. Umeen artean gertatzen dira gehienetan eta onddoek baino buruhauste gutxiago eman arren, guztiz desagertarazteko hainbat tratamendu daude. Likido azidoekin erre daitezke, baina badira kirurgialariek eta dermatologoek erabiltzen dituzten beste metodo batzuk.

Papilomak prebenitzeko, txankletak erabiltzea eta oinak modu egokian sikatzeta ondo etorriko zaigu. Era berean, izerdia erregulatuzko produktu eraginkorrak badira, eta horiek erabiltzeak mesede egingo digu.



Lizarra, Seminarioko patioan.

## Lizarra

*Fraxinus Excelsior*

**Z**uhaitz sendoa da, 40 metro inguru har dezake, enbor zuzena du eta adar gutxikoa da. Udaberrian loratzen da eta fruituak udazkenean heltzen dira, baina sarritan zuhaitzetan irauten dute negua iragan arte.

Euskal Herriko mitologian errotuta dagoen zuhaitza da, zentzu ekonomikoaz gain (babak eusteko, itxiturak egiteko...), antzina, lizarrek ganadua tximistetatik babesten zutela esaten zuten, eta arrazoi horregatik, eliza, etxe, borda... ondota landatzen zituzten (Oro, Aralar, Jugatxi...). Bestalde, toponimo ugari egiten diote erreferentzia lizarrari, besteak beste, Lizardi, Lizarrusti, Lizarraga, Lizarralde...

Kalitate handiko egurra du, malgua, euskorra eta gogorra. Ebanisterian (altzari turkoak), aroztegian (lanabesen kirtenak), gurdigintzan eta tornugintzan oso estimatua. Oso kalitate handiko ikatza ematen du eta hostoak eta adarrak oso onak dira ganaduarentzako, arrazoi horiengatik, inausi egiten dituzte.

Apaingarri egokia da ibai eta etorbi-deen hegaletarako, eta erraz ikus genezake gure kale eta parkeetan landatuta; Bergaran, esate baterako, Errekalden aurki dezakegu. Lorategietarako hainbat espezie atera dituzte, adibidez, F. Ornus, apaingarri modura landatzeko.

Lizarrak propietate fitoterapeutikoak ditu, eta propietate horiei esker artritisa, hezueri, eta abarrei aurre egiteko erabiltzen dira lizar hostoak. Garbitzaillea (azido urikoa, urea,...) da eta potasio gatzak eta manitola dituen diuretiko oso ona ere bada.



Onddoak eta papilomak prebenitzeko oinak ondo lehortzea gomendatzen dute.

Testua: Maitane Arizabaleta.

## San Lorentzon jaiak aspaldiko partez

**Duela hamabost bat urte** ospatu zituzten azkeneko aldiz San Lorentzoko jaiak. Aurten, jai hori berreskuratu nahi izan dute, eta **joan den zapatuan**, irailak 1, ospatu zuten San Lorentzo. Abuztuaren 10ean da San Lorentzo Eguna, baina jende asko kanpoan joaten denez, irailera pasatzea erabaki zuten.

Zapato arratsaldean, **umeendako hainbat joko** izan ziren: kukañak, zaku lasterketak, baita bizikleta lasterketa bitxia ere, azkeneko iristen zenari ematen zioten-eta saria. Gero, **buruhandiak eta txokolate jana** izan ziren. Gauean, berriz, **sardina jana** egin zuten, eta afalostean, berriz, dantzaldia **Iñaki Quintanilla** soinu jotzailearekin. Argazkian ikus daitekeen moduan, majo ibili ziren, bai, San Lorentzoko jaietan!



## Osintxuko Kofraixak joan den asteburuan

**O**sintxun Kofraixekin eman zieten amaiera abuztuari. **Abuztuaren 31n hasi eta irailaren 2ra arte**

Kofraixak ospatu zituzten. Egubakoitz arratsaldean hasi zituzten jaiak, ohiko bihurtu den **bizikleta martxa** bitxiarekin.

**Mozorroputa** ateratzen dira osintxuarrak bizikletan, eta aurtengoan Bergarara joan ziren ibilaldia egitera. Egubakoitzean bertan, herri afaria egin zuten. Zapatuan, berriz, **umeendako jolasak eta rock kontzertua** izan ziren, besteak beste.

Domekan, **herri kirolak, pilota partiduak eta dantzaldia**.

### IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK  
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA  
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA  
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
FAXA: 943 76 09 32

### Usoa Pub



☎ 943 76 38 57  
Irala 1

PINTXO eta BOKADILOAK  
SEKULAKO MARTXA!!

### EUXEBIO II

Irala z/g ☎ 943 76 07 92

## EPA / HHI MATRIKULA ZABALIK

MAILA GUZTIAK

Nobedadea:

**25 urtetik gorakoendako  
unibertsitaterako sarbidea**

INFORMAZIOA

Barrenkalea 33-2.a (Irizar jauregia)

Tel. eta faxa: 943 76 44 52

IRAKASKUNTZA OFIZIALA ETA DOANEKOA

# kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Aintzane Irizar **Publizitatea:** Mireia Larrañaga **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Sergio Azkarate, Gari Bragado **Telefonoa:** 943 76 03 97 **Faxa:** 943 76 29 77.

Antzuolako hamabostekaria, 84. zenbakia. 2001eko irailaren 7a.

## Eskolarako garaia heldu da

### Aurtengo kurtsorako 144 umek eman dute izena Herri Ikastetxean

**Datorren astelehenean hasiko dituzte eskolak Antzuolako Herri Ikastetxean. Bi hilabete baino gehiago oporretan igaro ostean, bueltatzeko garai iritsi zaie. Datorren astelehenean, irailak 10, hasiko dira. Datorren kurtsorako 144 umek eman dute izena dagoeneko.**

**A**stelehen goizean, 9:30ean, hain zuzen ere, irekiko ditu bere atak Antzuolako Herri Ikastetxeak. Irakasleak hasi dira dagoeneko lanean, kurso berria prestatzen. Ikasleak, berriz, astelehenean hasiko dira, esan bezala. Irailaren 24ra arte, baina, goizez bakarrik izango dituzte eskolak.

144 umek eman dute izena aurten. Maila bakoitzean 15 ume arituko dira, batez beste. Pilar Etxaniz ikastetxeko zuzendariak azaldu digunez, azken urteetan mantendu egin da ikasle kopurua, nahiz eta duela urte batzuetatik hona nabaria den jaiotze tasak behera egin duela.

Aipatutako 144 ume horiek 2 urte-tik 12ra bitartekoak dira. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza eskaintzen dute Antzuolako Herri Ikastetxean. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ikastera, berriz, Bergarara joaten dira Antzuolako ikasleak. Aurten, 15 antzuolarrek hasiko dituzte DBHko ikasketak Bergarako institutuan.

144 ume horietaz 17 irakasle arduratuko dira. Maila bakoitzak bere tutorea izango du, 10 tutore guztira. Bestalde, heziketa fisikoko irakasle bat eta ingeleza irakatsiko dien beste bat izango dute. Laguntzarako beste hiru irakasle ere izango dituzte herri ikastetxean. Hiru irakasle horiek hainbat gauzatzaz ardurtzen dira: txikienen sarrera prozesuaz,



Gazteenak Lizarrara joango dira, eta nagusiak Zuatzako uhartera.

psikomotrizitateaz, kurtsosan landuko diren gaiak aztertzeaz, eta abar. Azkenik, eskolako kontsultorea dugu. Kontsultorearen lana, besteak beste, ikasleei jarraipen pertsonalizatua egitea da, eta batez ere, arazoren bat duten ikasleei.

#### KURTSO HASIERAKO BIDAIA

Urtero bezala, kurtsoa ondo hasteko, 4 eguneko irteera egingo dute Lehen Hezkuntzako ikasleek. Lehenengo, bigarren eta hirugarren mailako ikasleak Lizarra-

ko kanpinera joango dira irailaren 11tik 14ra. Lau irakasle joango dira eurekin. Gainerakoak, berriz, irailaren 18tik 21era Zuatzako uhartera joango dira. Pilarren esanetan, badira urte batzuk irteera hau kurtsu hasieran egiten dutenetik. Horren arrazoia da, umeak euren artean elkar ezagutzea eta baita irakasle berriarekiko harremanak lantzea ere. Gainera, garrantzitsua ei da hasierako harremanak eskolako testuingurutik kanpo lantzea.

■ ■ ■  
Lehen Hezkuntzako ikasleek 4 eguneko irteera egingo dute kurtsu hasieran  
■ ■ ■

# Futbol denboraldia hastear da

Jubenilak eta neskak izango dira liga hasten lehenak. Datorren astean, irailaren 16an, hain zuzen ere, hasiko dute denboraldia. Gainerakoek, berriz, iraila-

ren 23an hasiko dute. Aipatzekoa da kadeteen taldeak 15 jokalaria bakarrik dituela; beste bi topatu ezean, ez dute talderik osatuko. Nesken taldean ere

badute arazorik, ez dute eta entrenatzailearik topatzen, nahiz eta oraingoz, Arantzazu Kortabarria dabilen neskek entrenatzen.



## KADETEAK

Gurutz Madariaga eta Andres Arbulu, entrenatzailea eta laguntzailea dira. Jokalariak: Auritz Guridi, Unai Madariaga, Txomin Alberdi, Imanol Lizarralde, Xabin Muruamendiaraz, Eneko Mujika, Luis Franco, Mikel Idiakes, Aitor Godoy, Josu Asensio, Ander Cabrera, Iban Urzelai, Julen Larrañaga, Dabid Fresno, Ekaitz Olalde eta Iñaki Arbulu.



## LEHEN MAILAKO JUBENILAK

Jose Angel Fernandez eta Juanjo Bote dira taldeko entrenatzaileak. Jokalariak: Pello Lopez de Subijana, Dani Garcia, Aritz Saidi, Xiker Iparragirre, Kepa Igarza, Gotzon Zabalo, Oihan Gezalaga, Hodei Aranguren, Aritz Elorza, Egoitz Mendia, Gorka Iglesias, Jose Rodriguez, Erik Lizarralde, Jon Ander Castro, Jon Gurutz Godoy eta Endika Iturbe.



## NESKEN FUTBOL TALDEA

Ez dute entrenatzailearik oraindik. Jokalariak: Edurne Iturbe, Olaia Alberdi, Alazne Aldaldu, Iratxe Azkargorta, Irati Berraondo, Larraitx Berraondo, Iraia Gabilondo, Nerea Barkero, Itziar Jauregi, Goreti Fernandez, Kristina Longares, Enara Agirre, Esther Reinoso, Arrate Aranguren, Ana Peñalba, Alazne Alberdi, Uxue Alberdi, Garazi Larrea eta Aintzane Jauregi.



## BIGARREN MAILAKO ERREGIONALA

Andoni Azkargorta eta Igor Larrea dira entrenatzaileak. Jokalariak: Jon Arregi, Iker Irizar, Ieltsu Mendizabal, Unai Gezalaga, Juan Pedro Jurado, Mikel Jauregi, Gurutz Zabalo, Aitor Berraondo, Samuel Cuevas, Eneko Iturbe, Ibon Segurola, Ibai Azkarate, Jabi Peñalba, Jon Iturbe, Aritz Alonso, Josu Segurola, Luis Herzog, Jon Aranguren, Aitor Gabilondo eta Eneko Zabaleta.

**GOROSTI**  
**Taberna**

☎ 943 76 62 96  
Zurrategi plaza ANTZUOLA



Jose Gomez  
Abad

Errekalde 6, 4-B. Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43

**AITZ-GARBI**



taberna  
jatetxea

Pintxoak eta kazulatuak.  
Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51

# Finalista Eguna, mendizaleen jaia ospatuko dute domekan

Hogeita zazpigarren aldiz ospatuko dute mendizaleek jaiegun hau

Urtero bezala, datorren domeka, irailak 8, herriko mendizaleen jaieguna izango da. Trekutzen ospatuko dute egun hori, eta mendi buelta, bazkaria eta dantzaldia antolatu dituzte Arrolakoek, besteak beste.

**M**endian ibilaldia egin, eta jaiegun polita pasatu nahi duenak aukera paregabea dauka datorren domekan. Goizeko 9:00etan jarri dute hitzordua Arrolakoek Herriko Plazan, eta Antzuola inguruko mendietan bizpahiru orduko ibilaldia egin ostean, Trekutzera joango dira. Hantxe, Gaztelugaineko txabolana, zain izango dute hamarretakoa mendizaleek, ordurako prestatuta izango dute eta antolatzaileek, salda beroa eta txorizoa. Hori bai, bazkaria nork berea eraman beharko du. Arrola elkarteko arduradunek mahaiak jarriko dituzte. Edariari dagokionez, urtero bezala, taberna jarriko dute Trekutzen, beraz, ez da etxetik eraman beharrik izango.

Bazkaldu ostean, ondo pasatzeko eta dantzarako aukerarik ere ez da falta. Herriko trikitilari gazteak arituko dira, ohi bezala, eta umeendako hainbat jolas ere antolatu dituzte.

## URTEEKIN ALDATU EGIN DA FINALISTA EGUNA

1974ko irailaren 8an ospatu zuten Finalista Eguna lehendabiziko aldiz. Garai hartan, baina, Koroson izaten zen. Orduan ere mendizaleen jaieguna izaten zen Finalista Eguna. Baina, horretaz gain, sariak banatzen zituzten herriko mendizaleen artean. Urtean zehar igotako mendien arabera banatzen zituzten



Bazkalostea herriko trikitilari gazteek alaituko dute.


sariok. Hiru maila egoten ziren: 15.000, 25.000 eta 50.000 metro igotakoak. Horretarako, noski, igotako mendi guztien altueren batuketa egiten zuten. Baina, zelan jakin mendizale bakoitzak zenbat mendi igo dituen? Arrolakoek azaldu diguten moduan, nahiko galduta dagoen ohiturari esker. Mendi tontor askotan buzoia egoten zen, eta oraindik ere ba-

dago, gainera. Beraz, mendizaleak bere elkarteko txartela buzoira bota behar izaten zuen, eta beste mendizale batek txartel hori hartu eta elkartera eraman behar izaten zuen. Horrelaxe jakiten zuten mendizale bakoitza zein menditan egon zen. Ohitura hori galduz joan zenez, sariak banatzeko ohitura ere galdu egin zen Antzuolako Finalista Egunean.

Goizeko 9:00etan abiatuko dira  
plazatik Trekutzera joateko

**zabalo**  
IGELTSEROTZA  
Jose Luis Zabalo  
Birgaitzeak • Fatxadak  
Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak  
Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA. Tf. 943 76 60 89

**Igor eta Txomin**  
  
Margoak orokorrean  
ANTZUOLA 609 157 131  
BERGARA 609 150 164

**MUJIKA HARATEGIA**  
  
Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrak eta oilaskoak  
Kalebarren, 1. ANTZUOLA  
Tf. 943 76 64 34

**LEKU-BERRI MERENDEROA**  
Janariak eta edariak  
Tf. 943 76 60 94



laz ere lehen saria eman zioten Kontxiri.

## Kontxi Izagirre, Ordiziako azokan sariduna «Sagarrak mimatu eta ondo ureztatzea garrantzitsua da»

**Bidaurre baserriko Kontxi Izagirrek, azkenengo bi urteetan bezala, lehen saria irabazi du Ordiziako azokako fruta lehiaketan. Sagarrak, madariak, pikuak... denetik aurkeztu dute. Hurrengo lehiaketa datorren zapatuan dute, Bergaran, San Martinetako azokan.**

**Ez da Ordizian irabazi duzuen lehen aldia, ezta?**

Ez, hirugarren aldia da, azken bi urteetan ere lehen saria eskuratu genuen. Zortzigarren edo bederatzigarren aldia izango da aurkeztu garena, eta gainerako urteetan hirugarren geratu ginen.

**Sariek laguntzen dute saltzeko orduan?**

Bai, lagungarriak izaten dira ezagutzera emateko. Jendeak irabazi duzula jakiteak laguntzen du.

**Zer hartzten du kontuan epaimahaiak?**

Denetik pixka bat: aniztasuna, hau da, zenbat fruta mota ezberdin aurkezten dituzun, kalitatea, frutek daukaten itxura, eta baita aurkezpena ere, erakusmahaietan zelan aurkeztuta dauden.

**Zenbat fruta mota daukazue?**

Denera, 54 fruta mota eraman ditugu Ordiziara: 15 sagar mota, 14 madari mota, bost mahats mota, pikuak, fruitu lehorrak, melokotoiak, fruta txikiak...

**Batez ere sagarrak dituzue. Zein da halako sagarrak izateko sekretua?**

Ez dago sekreturik; sekretu bakarra sagarrak zaintzea da, mimatzea eta ondo ureztatzea. Hori bai, kontuan hartu behar da hemengo klima, eta horren arabera sagar motak landatu.

**Bergaran, San Martinetako azokara ere joango zarete, ezta? Irabazteko esperantzarik bai?**

Hori ez da jakiten, baina saiatuko gara.

### ARAU SUBSIDIARIOAK IKUSGAI JARRIKO DITUZTE UDALETXEAN

Azkenengo Kontuolan kontatu genizuen bezala, arau subsidiarioak berritzeaz daude. 1984. urtekoak dira oraingo arauak, eta ordutik ez dituzte aldatu. Uztaileko osoko bilkuran behin-behineko dokumentu berria onartu ostean, dokumentu berri horren erakusketa antolatuko du Udalak. Udaletzeko osoko bilkuren aretoan jarriko dute erakusketa datorren astean bertan, eta nahi duenak han izango du arauetan egingo diren aldaketen berri. Ohiko ordutegietan egongo da zabalik erakusketa. Bestalde, dokumentu horri alegazioak egiteko aukera ere badago hil honen amaiera arte.

Aldaketa garrantzitsuenen artean, lurzoru industrialari dagokiona dugu. Arau berriekin, Ipurtikan industrialde berria egin ahal izango dute. Bestalde, alde zaharraren egiturari eustea aurrez ikusten du dokumentu berriak.

### EGUZKI AUZOAN EGONGO DA LIBURUTEGIA ASTELEHENETIK AURRERA

Liburutegi berria datorren astelehenean, irailak 10, zabalduko dute, udako oporretan itxita egon ondoren. Gizarte Etxe berria egiten urrian hastekoak direla eta, Eguzki auzoko lokal baten jarri dute liburutegia, eta ohiko ordutegia izango du: arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara, hain zuzen ere. Gimnasia eta aerobic lokala ere tokiz aldatu dute, Eguzki auzoko beste lokal batean jarri dituzte. Dena dela, urrira arte ez dira aerobic eta gimnasia eskolak ematen hasiko. Izena emateko epea, berriz, irailaren erdialdean zabalduko dute. Gainerako lokalei dagokienez, Udalak jakinarazi digunez, han lokalak dituztenek urria baino lehen atera beharko dituzte bertatik gauza guztiak, esan bezala, orduan hasiko direlako Gizarte Etxe berria egiteko lanak. Dena dela, behar ez dituzten gauzak han laga ditzakete.



**MUEBLES IGEA**

Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

Sukalderako eta bainurako altzariak  
Altzari rustikoetan  
espezializatuak

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA



**Gutxitu psikikoen hezitzaile eta erizain laguntzaile ikasketak egin ditto, eta oin dala sei urtetik Olabe okindegixan dabil lanean. Matxiategiko dendan dihardu eta, batera, haurtzaindegixan ingurukuak ikasten ari da. Silviak 25 urte dauzka eta Cancer zeinukoa da.**

# Silvia Romero

**Zer egin dozu udako oporretan?**

Saloun, Valentzian, Extremaduran eta Portugalen egon naiz. Opor ezin hobiak.

**Eta zer moduz lanera bueltia?**

Gogorra. Oso gogorra.

**Laneko gauzarik onena?**

Jendiakin egotia.

**Eta txarrena?**

Ordurako ezin irtetzia batzutan.

**Ogixa, asko gustatzen jatzu?**

Buenooo!

**Ogixa, zerekin goxuen?**

York urdaiazpikuakin, gaztaiakin...

**Janari eta edari bat?**

Pasta eta zumua.

**Zer izan nahi ziñuan txikittan?**

Erizaiña.

**Lanbidez aldatzekotan, zer?**

Nire ikasketekin zerikusixa daukan zerbaitetan lan egingo nuke gustora.

**Urtaro bat?**

Uda.

**Udan, mendia ala itsasua?**

Itsasua.

**Gustoko hondartza bat?**

Cadizeko edozein.

**Udako gauzarik onena eta txarrena?**

Onena aspaldiko jendiakin egotia eta txarrena bueltia.

**Kolore bat?**

Hainbeste dira: berdia, urdina...

**Gustoko jantzi bat?**

Prakak.

**Oroitzapen on bat?**

Aittaren herrira joaten giñanian oporretan.

**Zerekin egiten dozu barre?**

Nere illobekin.

**Eta zerk jartzen zaittu triste?**

Edozer gauzak. Nahiko sensiblia naiz.

**Egunkarixan irakurtzen dozun lehen gauza?**

Portada eta atzealdeko orrixa.

**Horoskopua irakurtzen dozu?**

Bai.

**Superstiziosua zara?**

Bai.

**Manixarik?**

Askok. Adibidez etxetik irten baino lehen dena ordenian lagatzia.

**Bergarako txoko bat?**

Bideberri.

**Musika talde bat?**

Manolo Garcia.

**Bestiengan gehixen baloratzen dozuna?**

Egixa esatia.

**Loterixan 200 milioi irabazi ezkerok?**

Ondo bizi eta 3. mundura laguntza bidali.

**Zenbat ordu egiten dozu lo?**

Gauetz gutxi. Gero siesta botatzen dot.

**Eta zerekin egiten dozu amets?**

Munduan pakia egotiaikin.



## INGELESA

### 2001-2002 MATRIKULA ZABALIK

Klaseak goizez, eguerdiz eta arratsaldez

**Haurrak, gazteak eta helduak**

Azterketa ofizialeterako prestakuntza

Enpresak: ingeles teknikoa eta komertziala

Ordutegi bereziak: dendariendako, erreleboan lan egiten dutenendako eta etxeoandreendako

**IKASTARO TRINKOAK IRAILEAN!**

**ESPOLON**



**School of English**

**INFORMAZIOA:**

Ibargarai 31, barruko plaza.

Tf. eta faxa 943 76 03 53.

Astelehenetik eguakitzera

10:00-12:30 eta 16:00-19:00.

**CAMBRIDGE UNIBERTSITATEKO  
ESAMINETARAKO  
DEBA-DURANGALDEA ES438  
KOMITEKO KIDE**

### Bergarako Udala



**Bergarako Udalak Obra eta Zerbitzuetako brigadarako langilea kontratatu behar du lehiaketa-oposizio bidez eta behin-behineko lan kontratuarekin.**

**Lehiakideen baldintzak**

-Eskola graduatua, lanbide hezkuntza LH1 edo pareko titulazio maila izatea.  
-Euskara jakitea, bigarren hizkuntza eskakizunari dagokion maila, derrigorrezkoa.

-Langabezian egotea eta dagokion bulegoan izena emanda egotea kontratua sinatu aurreko egunetan.

**Instantziak**

Instantziak aurkezteko epea 2001eko irailaren 14an, 13:30etan bukatuko da.

Oinarriak Idazkaritzako bulegoetan.

### Bergarako Udala



**Estatuko Estatistika Institutua Bergarako 2001eko Biztanlego eta Etxebizitzaren Errolda egiteko honako kontratazio hauek egitera doa:**

**12 Errolda-Agente:**

2001eko urriaren 15etik abenduaren 28ra.

**2 Talde-Arduradunak:**



2001eko urriaren 15etik 2002ko urtarrilaren 2ra.

Interesatuak Udal honetako Idazkaritzako bulegoetara jo dezakete eta bertan emango zaie instantzi inprimakia eta abar.

**Instantziak**

Instantziak aurkezteko epea 2001eko irailaren 14ko 13:30etan bukatzen da.

Bergara, 2001eko irailaren 5a



# Han egon dira

## VIETNAM

Asier, Gotzon, Aritz, Mikel eta Susana, berriz, Vietnamen izan dira. Motxilak bizkarrean hartuta joan ziren, ez zuten bidaia alde zurretik antolatu. Hoi An, Sapa eta Halong inguruak gustatu ei zaizkie gehienbat. Sapan trekinga praktikatu zuten, eta han zebiltzala, hara non topo egiten duten bergarar batzuekin.

Dena dela, hango jendearen harrera azpimarratu nahi izan dute: "Oso jende apala eta atsegina da, kuriositatez beteriko jendea, galdera mordoa egiten ziguten". Bestalde, harritura geratu ei dira turismotimo aldetik zein esplotatuta dagoen ikusita: "Joan aurretik ez genuen espero hain toki turistikoa topatzea".

## TURKIA

Maite eta Alex Turkian izan dira oporretan. Azkenengo urteetan moduan, bizikletan ibili dira aurten ere, eta 800 bat kilometro egin dituzte bizikletaz. 24 egun egin dituzte hantxe, eta denetik ikusi dute, kostaldea eta barrualdea. Bi astean Itsaso Beltzeko kostaldea zeharkatu zuten, eta barrualdera joan ziren gero. Capadocia inguruak gustatu zaie gehien: "Oso inguru berezia da, bertako geologia ere berezia da eta: haizetan daude eraikita etxeak eta elizak, baita lur azpian ere". Jendeari dagokionez, zera azaldu digute: "Hemen ez daude oso ondo ikusita turkiarrak, baina oso ondo hartzen dute kanpoko jendea".

## KORSIKA

Nagore Azkarate Korsika bisitatzen izan da aurtengo abuztuan. Bi aste igaro ditu hantxe Jone eta Naiare mondragoetarrekin batera. Toulonen, Niza ondoan, hartu zuten ferrya eta Korsikara abiatu ziren. Kanpadenda eta automobila eraman zituzten. Iparraldean hasi eta uharte osoa zeharkatu zuten. Nagoreri barrualdea gustatu zaió gehien: "Hango mendi eta errekek zoragarriak dira, edozein erreka da bainu bat hartzeko aproposa". Askok harritu ei zituen hemengo turistikariek ez aurkitzeak; Nagoreren esanetan, Korsika italiarrez beteta dago. Gomendatzeko moduko bidaia dela esan digu Nagorek, eta nahiko lukeela bueltatzea.

**OILAGORRA  
TABERNA**

Barrenkalea 21 BERGARA


**MUJIK** **UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE**  
**FERRETERIA**

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8 ☎ 943 76 28 67 BERGARA



☎ 943 76 20 61



### JORDANIA ETA YEMEN

Irune, Igor eta Ibon ere ez dira etxean geratu, ez horixe. Jordania eta Yemen bisitatzera joan dira, antolatutako bidaia batean. Hainbat abentura ekarri dituzte eurekin. Oso gustura ibili dira. Jordania zortzi egun igaro zituzten, eta handik Yemenera joan ziren. Guztira 27 egun egin dituzte Asian. Jordaniari dagokionez, Jerash, Wadi Rum desertua, Itsaso Hila eta Petra aipatu dizkigute. Shibam ere (argazkian) asko gustatu zaie. Dena dela, Yemen gehiago gustatu ei zaie. Lurralde haietako hainbat gauzarekin harritu dira: besteak beste, gizonetako guztiak armatuta ibiltzen ei dira eta, esan digutenez, hasieran, batez ere, txunditu egin ei zituen horrek.

### NEW YORK

Amaia, Antonio eta Luis Zabala anai-arrebak New Yorken izan dira. Zinemazaleak izanik, hainbat eta hainbat filmeren agertoki izan diren tokiak bisitatzera joan dira. Denetik egin dute, baina, batez ere, musikalak ikusi dituzte, lau musikal, hain justu: *Kiss me, Kate*, *42th Street*, *Annie, get your gun*, eta *Cabaret*. Baina bidaia denen gustura egin behar zela-eta, dendarik denda ere ibili dira New Yorkeko kaleetan. Dena dela, New Yorkeko toki turistiko ugari ere ikusi zuten: Askatasunaren estatua, Empire State, Dorre bikiak... Oso gustura ibili dira, baina astebete gutxiegi ei da New York behar den moduan ikusteko.

### DANIMARKA

Eider, Iker, Iñaki eta Maite Danimarkan izan dira abuztuan, eta hamabost egun egin dituzte hantxe. Alemaniatik Danimarkara ferryan joan ziren, baina automobila eraman zuten. Aterpetxe eta kanpinetan hartu du ostatu egun horietan lagun talde honek. Harrigarria ei da zelan dauden prestatuta aterpetxe eta kanpinak; hemengoak baino askoz hobeto zainduta ei daude: garbiagoak, zerbitzu gehiagorekin... Kostaldea, barrualdea, denetik ikusi dute. Kontatu digutenez, Kopenhage (argazkian) asko gustatu zaie, oso hiri ederra ei da. Gomendatzeko moduko bidaia dela esan digute.

### MEXIKO

Iñigo, Susana, Nuria, Unai, Txus eta Mireia, berriz, Mexikon ibili dira hilabetez. Han, Celaya hirian, Mikel bergararrari eta Marijo emazteari bisita egin zieten. Mexiko Barruti Federala bisitatu ondoren, Chiapasen eta Pazifikoko kostaldean bi aste igaro zituzten. Handik Celayara joan ziren, Mikelen etxera. Kontatu digute Chiapas ingurua eta komunitateetan zelan bizi diren ikustea oso interesgarria izan dela. Guanajuato hiria ere izugarri gustatu zaie. Mexikarrei dagokionez, azaldu digute oso atseginak direla eta beti laguntzeko prest daudela. Buelatzeko gogoz daude dagoeneko, asko geratu ei zaie-eta ikusteko. Argazkian, Teotihuacanen.



gizon & emakume

Barrenkalea 35 BERGARA



**BANKINTER**

**%3,5** etik aurrera lehen 6 hilabeteetan

Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren\*

\*Irekiera komisioa: %1. 35 urte bitartearaino

**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

## Bergara-Tolosa ligako lehen partidua zapatuan Agorrosinen

Bergara KEko preferente mailako futbol taldeak liga txapelketa hasiko du zapatuan Agorrosinen, 17:00etan. Mahoneroek Tolosaren kontra jokatuko dute. Aurreko denboraldian bi taldeak hirugarren mailan aritu ziren. Juanina Garai bergararren entrenatzailea itxaropentsu dago denboraldi berriari begira.

Garairen hitzetan, «gustura nago osatu dugun taldearekin. Talde gaztea daukagu, etorritako jokalaria berri gehienak gazte mailakoak direlako. Hala ere, badiugu esperientziadun jokariak ere bai eta itxaropentsu nago, zapatuan lehenbiziko partidua jokatzeko goz».

Fitxaketei dagokienez, Ander Ruiz de Azua atezaina, Iñigo Castelo atzelaria eta Igor Arriaga, Xabi Arregi, Iban Arriola, Iban Rajado eta Bixen Calzón aurrelariak fitxatu ditu taldeak. Era berean, Bergarako gazte mailako taldetik Andoni Arrieta, Jon Alzola, Markel Lazpiur eta Manolo Ortiz igo dira preferenteko taldera. Joan den urteko taldearekin alde-ratuz, berriz, Arkaitz Aranak, Iñigo Iriartek eta Luis



Eguaztenean, Bergarak 0-2 galdu zuen Urolaren aurka Agorrosinen.

Blancok futbola utzi dute eta beste hainbat baja izan dira: Txonan Gallastegi eta Igor Alberdi bergararrek Aloña taldearekin fitxatu dute, Ondarruko Aurrerak Aritz Arabiourrutia fitxatu du eta Arkaitz Gaintzarain Arrasateko taldera itzuli da. Igor Errasti golegilea, berriz, taldearekin entrenatzen ari da oraingoz, eta Igor Larrañaga entrenatzaile laguntzaile lanetan arituko da Lauri Askargortarekin batera.

### KATEGORIA ZAILA

Mahoneroek Bergara Hiria Txapelketa irabazi zuten, zapatuan jokatuako finale-

an Elgoibar taldeari 1-0 irabazita. Oskar Maiztegi egin zuen partiduko gol bakarra. Aurretik, Bergarak Aloña hartu zuen mendean (3-1). Jon Alzolak, Bigen Calzón-ek eta Gorka San Vicentek sartu zituzten etxeko golak finalerdietako partiduan.

Hastear dagoen denboraldian Bergarak ez du erraza izango hirugarren mailara bueltatzea. Garairen esanetan, «gure helburua goian egotea izango da, baina preferentea oso kategoria zaila da: 10 bat taldek dute mailaz igotzeko aukera eta bakarra igo daiteke. Partiduz partidu ikusiko da gure benetako maila».

### Bergara taldea

#### ATEZAINAK

Markel Egaña	Bergara	24 urte
Ander Ruiz de Azua	Arrasate	21 urte

#### ATZELARIAK

Mikel Osoro	Eibar	26 urte
Etor Laskurain	Bergara	26 urte
Ander Berraondo	Bergara	24 urte
Asier Rodríguez	Bergara	23 urte
Iñigo Castelo	Elgeta	20 urte
Oier Loiola	Bergara	21 urte
Unai Uribesalgo	Bergara	21 urte
Andoni Arrieta	Bergara	19 urte

#### ERDILARIAK

Oskar Maiztegi	Bergara	26 urte
Jokin Mendiartz	Bergara	24 urte
Josetxo Lizarralde	Bergara	25 urte
Gorka San Vicente	Bergara	22 urte
Markel Lazpiur	Bergara	18 urte
Jon Alzola	Bergara	19 urte

#### AURRELARIAK

David Espinosa	Arrasate	18 urte
Xabi Arregi	Antzuola	23 urte
Igor Arriaga	Eibar	19 urte
Iban Arriola	Markina	20 urte
Manolo Ortiz	Bergara	18 urte
Iban Rajado	Legazpi	19 urte
Bigen Calzón	Aretxabaleta	21 urte

## BEHEKO TABERNA

Menestra eta untxia dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74

## GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

## IKUSBI

ALKANDORAK,  
JERTSEAK, BAKEROAK  
ETA OSAGARRIAK

Irala 5 ☎ 943 76 53 09

# Antxintxikakoek Danimarkako Iron Man proba amaitu zuten

**Antxintxika** triatloi taldeko kideek joan den abuztuaren 4an Frederician (Danimarka) jokaturako Iron Man proba amaitzea lortu zuten. Distantziak honako hauek izan ziren: 3,8 kilometro igerian, 180 bizikletan eta maratoia korrika.

Aitor Larreak bederatziru ordu eta 55 minutu behar izan zituen proba amaitzeko, Julen Garitanok 10 ordu eta 14 minutu, Iker Larreak 10 ordu eta 48 minutuko denbora egin zuen eta Joseba Zuzaetak 11 ordu eta lau minutu. 400 partaide izan ziren lehian eta proba egunean tenperatura egokia izan zuten, 17-19 gradu bitartekoa, nahiz eta haizea eta euria ere jasan. Goizeko 07:00etan ekin zioten partaideek igeriketa probari.

## ESPERIENTZIA ONA

Antxintxikako kideak oso pozik itzuli dira Danimarkatik, proba uste baino hobeto amaitu zutelako. Era be-



Aitor Larrea Fredericiako proban, suediar baten atzetik.



Danimarkara joandako lagunak Kopenhagen.

rean, aipatzekoa da Aitor Larreak bosgarren denborarik onena egin zuela txirringularitzako proban, batez beste 35 kilometro orduko abiadurarekin. Julen Garitano igeriketa proban 16.a izan zen eta maratoian hiru

ordu eta 20 minutuko denbora egin zuen, 5. denborarik onena, hain zuzen.

Jutlandiako penintsulako proban mundu osoko triatletak bildu ziren, tartean 11 euskaldun. Proba jarraitzen 5.000 ikusle inguru

izan ziren. Joseba Zuzaetaren esanetan, «gogorrena maratoia izan zen, azken proba delako eta ordurako giharrek asko sufritu dutelako. Dena dela, laurok Iron Man proba arazo barik bukatu genuen».

**Ur-bide**  
ITURGIN TZ A

Zubieta, 28-behea  
BERGARA  
943 76 00 57  
630 261 617

**MIZPILDI**

**OKINDEGIA**

**Matxiategi 1**  
943 76 72 73

**Mizpildi 8**  
943 76 12 32

**MARILU UNZURRUNZAGA**

oleo-erakusketa

**NAHIKARI taberna**  
Masterreka 20 Tf. 943 76 57 71

**POL-POL**  
Taberna

943 76 07 78


# Udalaren kirol eskaintza zabala denboraldi berrirako

## Udal Kirol Zerbitzuak

urtero kaleratzen duen eskaintzaren barruan, mantentimendu gimnasia eta aerobiceko klaseak hasiko dira datorren astelehenean, irailak 10. Klaseak astean hiru egunez edo bi egunez hartzeko aukera dago. Ordutegiaren arabera, klaseak Labegaraietako Kiroldegian, Martinez de Iralako gimnasioan, Mariaren Lagundiko gimnasioan edo Ipintza instituan izango dira. Goizez zein arratsalde hainbat txanda egongo dira. Aerobiceko eta mantentimendu gimnasiako matrikulak 3.000 pezeta balio du eta ikasturtea bukatzen dutenei matrikula kopurua itzuliko zaie. Izena ematea Kirol Zerbitzuan egin daiteke.

## ESKAITZA ZABALA

Bestalde, tenis, jarduera fisiko egokitua (elbarrutuei zuzenduta) eta igeriketa egokituko ikastaroak urrian hasiko dira. Horietan ere partaideek aukera izango dute



Tenis ikastaroa urrian hasiko da.

onena zaien ordutegia aukeratzeko. Era berean, no-bedade gisa aurten gimnasia terapeutikoa ere eskainiko dute, baina oraindik ez dute zehaztu ikastaroaren hasiera. Argibideak Kirol Zerbitzuan jaso daitezke, 943 77 91 67 telefono zenbakian.

## EDADETUEN GIMNASIA

Bukatzeko, edadetuentzako gimnasia klaseak San Joxepe jubilatuen egoitzan izan-

go dira. Lau talde osatuko dituzte eta talde bakoitzeko gutxienerako ikasle kopurua 12 lagunekoa izango da (gehienez 18 lagunekoa izango da taldea). Klaseak urritik ekainera bitartean izango dira, goizez. Izena ematea eta kobraketa San Joxepe elkartearen bertan egingo da, hiruhileko bakoitzaren lehenbiziko hilabetean. Hiruhileko matrikularen prezioa 4.200 pezetako izango da.

## Labegaraietako XVI. futbito txapelketa hastear

**Dagoeneko** zabalik dago Labegaraietako futbito txapelketarako izena emateko epea. Talde bakoitzak 24.000 pezeta ordaindu beharko ditu irailaren 11 baino lehen Euskadiko Kutxan irekitako kontu korrontean. Parte hartuko duten taldeek Lagunak elkartearen kontuan sartutako diruaren ordainagiria, taldearen izena eta jokalarien zerrenda (nortasun agiriaren fotokopiekin) eta taldearen ordezkariaren izena eta telefonoa aurkeztu beharko dizkiete antolatzaileei. Datorren martitzenean, hilaren 11n, ordezkarien bilera egingo da kultura etxean, 18:30ean. Txapelketa San Martinen ostean hasiko da, irailaren 22an hain zuzen. Joan zen urteko ekitaldian 35 talde izan ziren lehian eta Errotagain izan genuen liga eta kopako txapelduna.

## KONDE PANADEROKUA



Burdiñate, 1. 943 76 02 57

## ETXE BERRIA

### ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65



### INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar  
Telefono Aranzadi 2 behea  
943 76 21 80 / 943 76 06 37

## CAMACHO

Drogeria Usaindegia

Bidekurutzeta 24 BERGARA  
☎ 943 76 13 35



## OGIZUN

koop. elk.  
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g  
BERGARA OÑATI  
943 76 20 49 943 78 24 13

## ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEA,  
EGUNEROKO MENUA,  
GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 943 76 53 12

# Lan eskaintzak

## Idazkaria/ koordinatzailea

Lan poltsa

### EGINKIZUNAK:

Elkartearen dinamizatzaile izatea.  
Elkarteko taldeen arteko koordinazioaz arduratzea.  
Beste elkarteekiko harremanez arduratzea.  
Diru eta gestio lanez arduratzea.

### BALDINTZAK:

Euskara ahoz zein idatziz jakitea.  
Kontularitza jakitea.  
Eskarmentua baloratuko da.

**IZENA EMATEKO EPEA:**  
Irailaren 21a.

## Dinamizatzailea

Egunerdiko jardunerako

### EGINKIZUNAK:

Kultur ekintzak proposatu eta aztertzea.  
Proiektuak abian jartzea.

### BALDINTZAK:

Euskara ahoz zein idatziz jakitea.

### BALORATUKO DA:

Kultura arloan esperientziaduna izatea.

### IZENA EMATEKO EPEA:

Irailaren 21a.

## Begiraleak

2001-2002 ikasturterako

### EGINKIZUNAK:

Aisialdiko ekintza eta programak aurrera eramatea.

### BALDINTZAK:

Euskara ahoz zein idatziz jakitea.

### CURRICULUMAK BIDALTZEKO EPEA:

Irekita dago.



Kartzela zaharra, Juan Irazabal z/g,  
20570 Bergara  
943 76 08 19

Merkatariok adi!

Zuen iragarkia  
GOITBn agertzeko  
aukera paregabea!

Spotak • Miniespotak • Teletestua • Gaininpresioak

Deitu 943 76 03 97  
telefonora!





MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

## bonofotoa

1644. urtean leku honetan bertan eraiki zuten ermitaren izena dauka baserri honek. Zein da izena?

## galde debalde

1. Honako zein esanahirekin lotuko zenuke *gaztaiko* bergarar berba?  
 A- Buruko ile zuria  
 B- Urrutiko etxea  
 C- Buruko kolpea

2. Zenbat lagunendako tokia izango du Zabalotegiko aretoak berritu eta gero?  
 A- 100 lagunendako  
 B- 150 lagunendako  
 C- 250 lagunendako

3. Zenbat bikotek hartuko dute parte Moises Azpiauren omenezko dantza txapelketan?  
 A- Hamabost bikotek  
 B- Zortzi bikotek  
 C- Hogeita bost bikotek



**Super BM**k emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du **BERRIGARAK** asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria **Maria Jesus Areitioaurten**arentzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Maria Jesusi! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:  
 Bonofotoa: **Oilagorra**  
 Galde Debalde: **1-A, 2-B, 3-C**

### BONOFOTOA

**GALDE DEBALDE** 1: \_\_\_\_\_ 2: \_\_\_\_\_ 3: \_\_\_\_\_

Izen-deiturak: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

**Ram esnea**  
 osoa, gaingabetua edo  
 erdigaingabetua, litroko brika

**98 PTA!**

**Super BMn beti eskaintzarik onenak!**



## Moises Azpiazen omenezko dantza txapelketa hilaren 14an

Azken urteotako ohiturari jarraituz, Moises Azpiazu zenaren oroimenezko Bikote Nagusien dako XVII. Dantza Suelto Txapelketa jokatu da egubakoitzean, irailak 14, 19:30ean, Udal Pilotalekuan. Izena emateko epea bihar, zapatua, amaituko da, eta, gehienez, hamabost bikote arituko dira lehiaketa.



Dantza sueltoko txapelketan hamabost bikote aritu daitezke gehienez.

San Martin jaien egitarauan ohiko bihurtu den ekitaldia dugu Moises Azpiazen omenezko dantza txapelketa. Hamabost urteko gorakoendako txapelketa da, eta, gehienez, hamabost bikote parte hartuko dute. Ezinbestekoa da, gainera, bikotekideetako bat bergararra izatea. Izena emateko kultura etxera dei-

tu beharko da: 943 77 91 58/9 telefonoetara. Bikotek *fandangoa* eta *arin-arina* dantzatu beharko dituzte trikitiaren laguntzaz, eta lau sari banatuko dituzte.

### BASTERRETXEA BERGARAN

Ekitaldi berean, Seguran jokatuako Euskadiko Dantza

Txapelketako irabazleek, Maite Lazkano eta Asier Ena bergarrek, sari gisa jasotako Nestor Basterretxearen eskultura emango diote Victoriano Gallastegi alkateari. Eskultura urte betez izango da Bergaran, datorren urteko Euskadiko Txapelketa jokatu arte.

## San Joxepe elkartearen argazki lehiaketa martxan

**San Joxepe** elkarteak argazki lehiaketa antolatuta du V. Kultura Hamabostaldiaren barruan. Edozeinek parte har dezake, pentsiodun eta erretiratuak izan ezik. Gaia honakoa da: *Nola ikusten dituzu pertsona nagusiak?*, zuri-beltzean zein koloretan. Lanak aurkezteko epea irailaren 29an amaituko da, eta mota bakoitzeko lau lan aurkez daitezke. Lanak postaz bidal daitezke edo San Joxepe bertara eraman. Epaimahaiak urriaren 2an emango du aditzera erabakia eta gero lan guztiekin erakusketa egingo dute egoitzan bertan. Argibide gehiagorako telefonoak: 943 76 30 09 edo 943 76 21 40.

## Kaleak margolariz beteko dira domekan

**San Martin** jaietako egitarauaren barruan, aurren ere ageriko pintura lehiaketa jokatu da. Beart-ek antolatu du Udalaren laguntzaz, eta aurtengo 28. aldia da.

Domekan, hilak 9, izango da. Euskarriak 09:00etatik 11:00ak bitartean sinatuko dira, elkartearen egoi-

tzan (Bolu kalea 49). Nahi duen edozeinek parte har dezake. Teknika eta gaia libre izango dira; hori bai, aire zabalean egin beharko dira, herriko edozein tokitan.

Lanak egun berean entregatu beharko dira, 13:00etatik 14:00etara bitartean, Beart-en egoitzan, eta

epaimahaiak egunean bertan emango du aditzera irabazleen izenak, 18:30ean, baita sariak banatu ere. Hogeita hiru urtez azpikoendako hiru sari izango dira eta nagusiagoendako, beste hainbeste.

Irailaren 9tik 16ra bitartean lanak ikusgai egongo dira Beart-en egoitzan.



Herriko edozein toki aukera daitezke.



# LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

# GURIA

## Taberna

Bidekurutzeta 5  
☎ 943 76 20 34



## Osintxuko Kofraixak, 1967


Joan zen astebukaeran Osintxuko Kofraixak ospatu ziren. Antza denez, jende larregi ez da ibili aurten baina jai giroa ez da falta izan eta Osintxura joandakoei ondo baino hobeto pasatu dute antolatutako ekitaldi guztiekin. Kofraixen tradizioa aspaldikoa da, eta oraingo asteko erretratu zaharra 1967. urtekoa duzue. Osintxuarrek

behin baino gehiagotan azaldu dute maisuak direla mozorrotzeko orduan. Oraindik ere jaiak hasteko bizikleta martxan mozorro originalak eta barregarriak ikusten dira. Saso batean estanak egiten zituzten Osintxuko koadrilek, eta karroza dotoreak ere prestatzen zituzten. Auzotarrentzat jai bereziak izan dira, eta umore ona izan da nagusi beti

Osintxun. Argazkian agertzen direnak primeran mozorrotu ziren, *ye-ye* estiloan ezkerreko bikotea eta aiton-amonarena eskumakoa.

Ezkerretik eskumara hauek dituzue: Maria Isabel Garaiondo, Alberto Gabilondo, Loli Agirrezabal eta Guillermo Azkarate.

Argazkia: Mari Kontxi Garaiondo



**Manufacturas LARRAÑAGA**

- Lan-babeserako artikulua
- Seinaleztapena
- Lanerako jantziak

Leizeaga 1.  
Tf. / faxa 943 76 59 53.



**Zumelaga**

JATETXEA

**58 urte zuen zerbitzura!**

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



**MEMESA**


INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

*Zuri Beltz margoak*

Barnealde eta kanpoaldeko erreforma, pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60  
607 447 494  
943 76 59 59



Masterreka 19, behea. 943 76 46 53.

*Ametz*

**TXINAKO MEDIKUNTZA TRADIZIONALA**

Shirley Garcia, akupuntore profesionala, 781 zkia.

**Antsietatea, stressa, tabakoa, depresioak, gizentasuna**

Tratamendu pertsonalizatuak eta ondorio gabeak.



Iraila 3. Tf. 943 76 12 35  
Mabatetegi 34. Tf. 943 76 23 37  
BERGARA



**3.000.000** ibilgailu baino  
gehiago aseguratuta  
lasai-lasai errepidean



# Problemarikgabe

*Egin kontuak!* 2.400 bulego, 12.000 lagun zure zerbitzura, 4.000 konponketa gune



**MAPFRE**

Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.

# AGIRRE

Martitzenean, irailak 11, 19:00etan Bidekurutzeta 18an.

**ZATOK DENDA BERRITUA IKUSTERA, GONBIDATUTA ZAUDE**





**ETXE MOBEL**  
MUEBLES ALTZARIAN

Araba Etorbidea 5 •  
Tel. / Faxa: 943 79 41 82  
**ARRASATE**




**RKUZ**  
ALTZARIAN

Araba etorbidea 20 •  
Tel. / Faxa: 943 79 23 51  
**ARETXABALETA**



**RKUZ**  
ELEKTROGAILUAK

Asunción, 1 •  
Tel. / Faxa: 943 79 10 97  
**ARETXABALETA**

**expert** 



**RKUZ**  
SUHARDE INTEGRALA

Mitarte 3 •  
Tel. / Faxa: 943 77 04 55  
**ARETXABALETA**

**FAGOR** 